

## Euskal AEko merkatuko zerbitzuak, positiboan 2018ko amaieran


**2018an Merkataritza salmentak %1,9 erreal gehitu ziren eta Merkatuko beste zerbitzuenak %2,0**

2018an bai Merkataritza sektorearen salmentek, non dauden sartuak handizkako merkataritza, txikizkako eta ibilgailuen salmenta eta konponketa, bai merkatuko beste zerbitzuenek emaitza positiboak eduki dituzte, %1,9ko igoerarekin Merkataritzaren kasuan eta %2,0koa beste zerbitzuenean bere osoan, den-dena termino errealetan, Eustaten datuen arabera.

2018ko laugarren hiruhilekoko emaitzak ere positiboak izan dira. Merkataritza %1,3 gehitu da 2018ko laugarren hiruhilekoan eta Gainerako zerbitzuak %0,6, den-dena aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, termino finkoetan.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, %0,3ko igoera izan da Merkataritzan, baina Gainerako zerbitzuetan %0,7ko jaitsiera, urtaro-eraginak kenduta eta prezio finkoetan.

### Euskal AEko merkataritza koiuntura-indizearen eta beste zerbitzuen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Merkataritzan urte artekoa positiboa izan da Txikizkako merkataritzan, %3,3ko hazkundearekin, eta Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan, %1,1ekoarekin, baina Handizkako merkataritzaren salmentek %0,3 egin dute behera.

Beste zerbitzuetan, euro finkoetan: Garraio eta Bilketaren salmenta-indizea %3,9 gehitu da; Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak ez du aldakuntzarik izan aurreko urteko hiruhileko beraren aldean (%0,0); Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzua jaitsi egin da (-%0,1), eta baita ere Ostalaritzarena (-%1,1) eta Informazio eta Komunikazioena (-%1,9).

Lurraldeka, Araban Merkataritza %4,5 eta Beste zerbitzuak %2,7 hazi dira; Bizkaian Merkataritza %0,6 igo da eta Beste zerbitzuak %1,2; eta Gipuzkoan Merkataritza %0,7 hazi da eta Beste zerbitzuak %1,4 jaitsi, hori dena 2017ko laugarren hiruhilekoaren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Euskal AEn langile okupatuak bi indizeetan gehitu dira, %1,3 Merkataritzan eta %1,9 Beste zerbitzuetan, urte artean.

### Euskal AEn zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). IV/2018

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
<b>Merkataritza</b>	<b>1,3</b>	<b>0,3</b>
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	1,1	0,4
Handizkako merkataritza	-0,3	-0,4
Txikizkako merkataritza	3,3	1,4
<b>Bestelako zerbitzuak</b>	<b>0,6</b>	<b>-0,7</b>
Garraioa eta biltegiatzea	3,9	1,2
Ostalaritza	-1,1	-1,2
Informazioa eta komunikazioak	-1,9	-0,3
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	0,0	0,2
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-0,1	-1,4
<b>Araba/Álava</b>		
Merkataritza	4,5	0,1
Bestelako zerbitzuak	2,7	1,9
<b>Bizkaia</b>		
Merkataritza	0,6	0,4
Bestelako zerbitzuak	1,2	1,2
<b>Gipuzkoa</b>		
Merkataritza	0,7	0,3
Bestelako zerbitzuak	-1,4	-5,0
<b>ENPLEGU INDIZEA</b>		
<b>Euskal AE</b>		
Merkataritza	1,3	0,5
Bestelako zerbitzuak	1,9	0,3

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

**Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea**

### 2018. URTEKO BALANTZEA

Urtearen orotarakoan, Merkataritzaren salmentek %1,9ko igoera erreal metatua izan dute; Beste zerbitzuenek, %2,0koa.

Hiru lurraldeetan eboluzio positiboak eduki dituzte merkatuko zerbitzuek. Araban Merkataritzak %5,2ko gehikuntza izan du eta Beste zerbitzuek %0,8koa; Bizkaian Merkataritza %1,0 hazi da, Beste zerbitzuak %2,3; eta Gipuzkoan Merkataritza %1,7 igo da eta %1,9 Beste zerbitzuak. Dena prezio finkoetan.

Merkataritzako sektorean enpleguak %1,2 gehitu ziren 2018an aurreko urteko batezbestekoaren aldean. Beste zerbitzuetan, %2,7.

### Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Urte arteko aldakuntza-tasa

	PREZIO FINKOAK		
	2018	2017	Δ%
<b>INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera</b>			
<b>Euskal AE</b>			
Merkataritza	96,9	95,0	1,9
Bestelako zerbitzuak	91,8	90,0	2,0
Araba/Álava			
Merkataritza	105,3	100,1	5,2
Bestelako zerbitzuak	86,5	85,8	0,8
Bizkaia			
Merkataritza	92,6	91,7	1,0
Bestelako zerbitzuak	89,8	87,8	2,3
Gipuzkoa			
Merkataritza	99,9	98,2	1,7
Bestelako zerbitzuak	98,0	96,2	1,9
<b>ENPLEGU INDIZEA</b>			
<b>Euskal AE</b>			
Merkataritza	94,1	92,9	1,2
Bestelako zerbitzuak	94,1	91,6	2,7

**Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea**

#### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62